

## **OLITE CHESS BIKOTEEN II. XAKE TXAPELKETA IREKIA (PASAPIEZAK)**

### **TXAPELKETAKO OINARRIAK**

DATA: 2017ko AZAROAREN 5a, igandea

TOKIA: Erriberriko Ostatua

ORDUTEGIA: Goizeko 10:00etatik

### **INSKRIPZIOAK**

**Banakako inkripzio bakoitzak 5€ balio du.** Bidali posta-elektroniko bat [torneotandem.adadae@gmail.com](mailto:torneotandem.adadae@gmail.com) helbidera ondorengo datuak emanez: Izena, abizenak, taldearen izena, jaiotze-data eta kluba edo eskola (entitate horietako kide izanez gero).

Talde bakoitza 2 edo 3 pertsonakoa izan daiteke. 3 pertsonako taldeetako bikoteak alda daitezke txanda bakoitzean atsedena eta parte-hartze handiagoa izateko. Beti ere, indarraren ordena errespetatu beharko da.

Izena emateko epea: **2017ko azaroaren 5eko 09:30ak arte.** Gehienez 90 xakelarik parte hartuko dute

### **JOKALARIEN ELOA**

Txapelketa planteatuta dago bikoteek batez beste eloko 1.800 puntu baino gehiago ez izateko, indar desberdinetako xakelariak batzeko eta xake sozialagoa eta dibertigarriagoa sustatzeko. Hiru jokalarien batez bestekoa ez da egingo; txanda bakoitzean jokatu duen bikotearen puntuak batuko dira.

### **ERAKUSKETA PARTIDA**

Txapelketaz kanpo, antolatzaileak ospe handiko lau xakelarien arteko partida lotzeko saiatzen ari dira. Maisuak, Maisu Handiak, Fide-ko Maisuak edota pertsona ospetsuak izanen dira eta bikote modalitateko txanda bat edo bi jokatu dute, xake soziala kirol xakearekin batera zabaltzen laguntzeko asmoz.

### **JOKO SISTEMA**

8 txandako sistema suitzarra, programa informatikoaren bitartez.

(Ez dira onartuko parekatzearen kontrako helegiteak, eskuz sartutako emaitzetan akatsak ez badira gertatu).

Inskripzioen kopuruaren arabera, antolatzaileek joko sistema alda dezakete.

### **BERDINKETA-HAUSTEAK**

Soilik saria lortzeko postuutarako egingo dira. Berdinketa protagonizatu dutenen arteko 5 minutuko "pasapiezak" motako partida bat jokatu da. Berdindutako asko izanez gero, antolatzaileek modu azkarragoak bilatu ahalko dituzte: Bucholz osoa eta zozketa, orden honetan.

### **ARAU BEREZIAK**

- 1) Peoiak sar daitezke 7. posizioan
- 2) Piezak sar daitezke xake ematen, baina ez mate emanez.
- 3) Peioak koroatzen badu, aukariari taularen gainean daukan pieza bat kenduko zaio (erregea izan ezik). Peioa desagertuko da eta beste bikotearena bihurtuko da. Taulatik kendu den pieza koroatu duen bikotearentzat izanen da, harrapatua balego bezala.

4) Jokaldia ez da amaituko erlojua sakatu arte. "Ukitu-mugitu" araua soilik existituko da taularen gaineko pieza ukituz gero. Kanpoko piezekin, nahiz eta pieza askatu, erlojua sakatzen ez bada, zuzendu ahalko da.

5) Legez kontrako jokaldia eginez gero, partida galduko da.

6) Pieza xake matean sartzen bada, aurkaria pieza horrekin geratuko da, baina ez da legez kontrako jokaldia izango, pieza sartzen duena xakean ez badago.

## JOKO ERRITMOA

Jokalari bakoitzak 5 minutu izango ditu partidarako.

## TXANDETAKO ORDUTEGIA

- |                       |                      |
|-----------------------|----------------------|
| 1. TXANDA: 10:00etan. | 5. TXANDA: 11.25ean. |
| 2. TXANDA: 10.20ean.  | 6. TXANDA: 11.45ean. |
| 3. TXANDA: 10.40ean.  | 7. TXANDA: 12:05ean. |
| 4. TXANDA: 11.05ean.  | 8. TXANDA: 12:25ean. |

Inskripzioen kopuruaren eta joko sistemaren arabera ordutegia alda daiteke eta "Pasapiezak" izan ordez, binakako azkarretako txapelketa bihur daiteke. Antolatzaileak saiatuko dira txandak ahalik eta arinen joan daitezen.

**AMAIERA** 13.30etan sari-banaketa egin ondoren.

## SARIAK

- 1- Sailkapeneko lehenengo taldea: 2 trofeo + 100 €
- 2- Sailkapeneko lehenengo bikote mistoa: 2 trofeo + 50 €
- 3- 14 urtez azpiko lehenengo bikotea: 2 trofeo
- 4- 12 urtez Azpiko lehenengo bikotea: 2 trofeo
- 5- Erriberriko lehenengo taldea: 2 trofeo

Sariak ez dira metagarriak izango.

**ANTOLATZAILEA: ADADAE**



Asociación de Amigos del Ajedrez Educativo

## BABESLEAK:



Parador Principe de Viana  
de Olite



Ayuntamiento de Olite  
Erriberriko Udala